

20%



Informazio-gida

6 HILABETE 6 ERRONKA



Piercingak eta tatuajeak. Lehenik eta behin segurtasuna



JUSTIFIKAZIOA

Pertsona askok erabakitzen dute gorputza piercing edo tatuaje batekin apaintzea; hala ere, askotan, erabakia informazio egokirik gabe eta praktika horiek dakartzaten arriskuez eta konplikazioak saihesteko errespetatu beharreko segurtasun-neurriez jabetu gabe hartzen da.

HELBURUAK

- Piercinga eta tatuaja zer diren eta nola gauzaten diren jakin.
- Piercing edo tatuaje bat egitera garamatzaten arrazoiei buruz hausnartu eta erabakia hartu aurretik kontuan hartu beharreko hainbat alderdi aztertu.
- Dauden piercing eta tatuaje motak ezagutu.
- Praktika horiek egiten dituen establezimendu batek bete behar dituen baldintzak ezagutu, baita errespetatu behar diren segurtasun- eta higiene-neurriak ere, eta horiek eskatzen ikasi.
- Praktika horiek dakartzaten arriskuez eta sor daitezkeen konplikazioez jabetu.
- Piercing edo tatuaje bat egin ondoren zer zainketa eta neurri hartu behar ditugun ikasi.
- Establezimendu batekin gatazka edo desadostasunen bat izanez gero nola jokatu jakin.

EDUKIAK

- Piercing eta tatuajearen definizioa. Zertan dautza teknika horiek?
- Piercing edo tatuaje bat egiteko motibazioak. Erabakia hartzerakoan kontuan hartu beharreko alderdiak.
- Piercing eta tatuaje motak.
- Praktika horiek egiten dituen establezimenduak bete beharreko baldintzak.
- Praktika horietan errespetatu beharreko higiene- eta segurtasun-neurriak.
- Ondorengo arretak eta zainketak.
- Piercing baten eta tatuaje baten konplikazio posibleak.
- Tatuaje bat ezabatzea.
- Erreklamazio-bideak, eremu horretako establezimendu batekin gatazka izanez gero.

ARIKETAK

HASIERAKO FASEA (aurretiko jarduera)

- Piercing edo tatuaje bat egiteko motibazioei eta gaiari buruzko informazioari buruzko galdetegia.

GARAPEN FASEA (saioa)

- 1. ERRONKA: Piercing bat jarriko dugu? Eta tatuaje bat? Erabakiak hartzean kontuan hartu beharreko alderdiak.
- 2. ERRONKA: Nora joko dugu hori egiteko? Establezimendua.
- 3. ERRONKA: Zer jarriko dut? Eta non? Piercing eta tatuaje motak.
- 4. ERRONKA: Egina dago, eta orain zer? Ondorengo arretak eta zainketak.
- 5. ERRONKA: Konplikazioak? Zer egingo dut? Nola jokatu arazorik izanez gero.
- 6. ERRONKA: Ezabatu dezaket tatuajea?
+ Ikasitakoen errepasoa.

APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA (ondorengo jarduera)

- Ikasi duzuna egiaztatu galdetegi honekin.
- Tatuajearen edo piercingaren profesional bati elkarrizketa.

OINARRIZKO KONPETENTZIEI EGINDAKO EKARPENA

DISZIPLINAKOAK

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.
- Zientziarako konpetentzia.
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.
- Arterako konpetentzia.

ZEHARKAKOAK

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- Elkarbizitzarako konpetentzia.
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
- Izaten ikasteko konpetentzia.

METODOLOGIA

- Gamifikazioa.
- Thinking based learning.
- Lankidetzako lana.
- Critical thinking.
- Case Study.
- Learning by doing.

ANTOLAKUNTZA

IKT baliabideak eta tresnak	Espazioak eta taldeak	Iraupena
Ordenagailua, proiektagailua eta pantaila. Tabletak. Interneterako sarbidea.	Erronka bakoitzak bi zati edo saio izango ditu. Lehenengo zatia ikasgelan egingo da, modu autonomoan, eta bigarren zatia, berriz, Kontsumobideko hezitzailearen dinamizazioaren bidez.	<ul style="list-style-type: none">• Aurretiko jardura: ordu 1• Erronka bakoitza: 2 ordu (ordu 1 lan autonomoan eta ordu 1 dinamizatuan)• Ondorengo jardura: 2 ordu • 15 ordu

EBALUAKETA

IRAKASLEAK

Ebaluazio inkesta.

IKASLEAK

Ebaluazio inkesta.